Si a eso añadimos la necesidad medioambiental de cambiar el tipo de actual combustible fósil a otras fuentes de energía limpia, está provocando unos altos niveles de investigación y desarrollo en las empresas de automoción y la implantación progresiva en el mercado de modelos comerciales con motores híbridos/eléctricos.

El proyecto **LONG-LIFE BATTERIES** es un proyecto Tknika en el que colaboramos 3 escuelas de FP con el objetivo de desarrollar y difundir conocimiento relativo a la tecnología de almacenamiento en baterías de vehículo eléctrico e híbrido, y plantear su uso en viviendas una vez haya concluido su vida útil.

Actualmente se conocen dos procedimientos que permiten alargar su vida útil:

- 1º Los nuevos procesos avanzados de mantenimiento y reparación avanzada en el taller.
- 2º La segunda vida en aplicaciones de estacionario relacionadas con energías renovables.

Por estas razones el proyecto queda enmarcado en dentro del proceso de Transición Energética incipiente que se está dando a nivel mundial y se marca los siguientes objetivos:

- DISEÑAR UN MAPA DE TECNOLOGÍAS DE BATERÍAS (LEGISLACION) Y PROCESO DE ENSAMBLAJES EN AUTOMOCIÓN.
- ELABORAR/RECOPILAR PROCESOS DE DIAGNOSIS DE LAS MARCAS PARA LAS BATERÍAS Y BMS.
- PROFUNDIZAR EN EL MANTENIMIENTO/DIAGNOSIS Y REPARACIÓN AVANZADA DE LOS SISTEMAS DE BATERÍAS EN AUTOMOCIÓN PARA ALARGAR SU VIDA.
- DIGITALIZAR LAS COMUNICACIONES (TRAMAS CAN) DEL BMS DE UNA BATERÍA DE AUTOMOCIÓN PARA DIDACTIFICAR.
- REUTILIZAR UNA BATERÍA AUTOMOTIVE PARA TAREAS DE ALMACENAMIENTO EN ESTACIONARIO.

Actores del Proyecto y sus funciones

Tknika



El proyecto se define y desarrolla bajo la supervisión de Tknika y cuenta con las siguientes líneas estratégicas:

- ENERGÍA FOTOVOLTAICA: ECONOMÍA CIRCULAR: Segundo uso de baterías
- MOVILIDAD ELÉCTRICA: prueba de sistemas de almacenamiento de energía, y
- REDES ELÉCTRICAS. Equipos/soluciones de almacenamiento para integración de EERR, gestión de la demanda y eficiencia de la red


Las aportaciones de cada centro podrían quedar definidas de la siguiente manera:

San Viator (Sopuerta) vía su departamento de Automoción es el líder del proyecto y realizará las modificaciones y reconfiguraciones necesarias para llevar las diferentes baterías a la configuración necesaria para que sean probadas en la microred de nuestro instituto. Por último, la labor del instituto de **Don Bosco (Errenteria)** es la de conseguir baterías de diferentes tecnologías para su posterior reconfiguración.

Este proyecto **aporta innovación al modelo energético de nuestro centro**, basado en la generación distribuida por energías renovables, la gestión y el almacenamiento inteligente de energía y el consumo eficiente tanto en edificación (passivhaus Enegur) como en vehículos eléctricos.

Nuestra vocación es la de seguir desarrollando conocimiento en el almacenamiento energético tanto en baterías como en forma de hidrógeno, por lo que se ha pedido un proyecto H2020 a Europa junto con Tknika, las escuelas mencionadas y agentes tecnológicos como Tecnalia.

El siguiente paso en el ámbito energético será el desarrollar el Centro de Excelencia en Transición Energética.



“HEZKUNTZAN BERDINTASUNA IZAN ARTE EZ DUGU BERDINTASUNEZKO GIZARTERIK IZANGO”

Gizartean aldaketa bat emateko bere egitura aldatu beharra dago, bere balio, arau eta ohitura eraldaketa baten bidez. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortu ahal izateko garrantzitsua da gizartean eraldaketa ematea, baina nola hartzen dugu parte guk, hezitzaile moduan?

Gizarte eragile guztiak garrantzitsuak diren arren, genero-berdintasuna lortzeko, gutako bakoitzak bere eremuan ahaleginak egin ditzakegu berdintasun hori benetakoa izan dadin.

UNESCOren arabera, genero berdintasuna **“emakume eta gizonen, neska eta mutilen eskubide, erantzukizun eta aukera berdintasuna da”**. Berdintasunak ez du gizonak eta emakumeak gauza bera direnik esan nahi, baizik eta eskubideak, erantzukizunak eta aukerak ezin direla sexuaren menpe egon.

Hezkuntza, emakumeak ahalduzko modu bat da, bizitza pertsonalean eta profesionalean aukeraketak egiten lagunduko dieten gaitasunak eskura ditzaten. Hori da gure lan esparrua, desberdintasunak murriztu, garapen zientifikoa eta teknologikoa indartu eta gizabanakoen eta gizarteen garapenean laguntzen lagundu, balioetan oinarrituz. Desberdintasun horiek eskola eremuko hainbat ataletan ikus daitezke: kurrikulumaren edukiak, materialak eta testuliburuak, orientazio profesionala, barne eta kanpo komunikazioa, baliabideen eta espazioen erabilera desberdina ikastetxeetan, etab.

Beraz, genero ikuspegia txertatu beharra dugu gure egunerokoan. Gure ikasleen beharrak, bai ikasketa prozesuan, enpresako praktikaldian, zein laneratzean ikuspuntu horretatik begiratu beharra dugu. Bide hori jorratzeko baliabideak beharko ditugu eta horretarako Usurbilgo Lanbide Eskolak bere Berdintasun Plana (2021-2024) lantzen ari da. Lan ildoak hauek izango direlarik:

- Eskolako pertsonen eta barne kudeaketaren bidez berdintasuna bermatu.
- Inguruko hainbat eragilerekin elkarlanean berdintasuna sustatu.
- Genero berdintasuna txertatzeko jarduerak bultzatu irakaskuntza prozesuan.
- Emakumeak enpresa munduan duen paperaren hausnarketa.
- Barne eta kanpo komunikazioa genero ikuspegitik landu.
- Genero jazarpen eta indarkeriaren kontrako protokoloa garatu.

Bide hau elkarrekin egiten dugun heinean norbere burua ezagutu eta elkarrengandik ikasteko aukera izango dugu gizarteko egitura aldatzeko helburu izanda.



AGENDA 2030 IGUALDAD DE GÉNERO PARA NO DEJAR A NADIE ATRAS



La Agenda mundial Educación 2030 reconoce que la igualdad de género requiere un enfoque que “garantice no sólo que las niñas y los niños, las mujeres y los hombres obtengan acceso a los distintos niveles de enseñanza y los cursen con éxito, sino que adquieran las mismas competencias en la educación y mediante ella”.

ESKOLA JASANGARRIA

Orain dela 9 urte gure ikastetxea Eskola Agenda 21 programan parte hartzen hasi zen. Ikastetxeen jasangarritasunerako eta kalitaterako hezkuntza-programa bat da eta komunitatearen partaidetzan oinarritzen da. Ingurumen-hezkuntza programa bat denez, ingurumen-arazoen konponbidean parte hartzeko ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatzea da haren xede nagusia.

Esan behar da Eskola Agenda 21 ez zegoela oso zabaldua Lanbide Heziketan eta gure ikasleek lehen hezkuntzako garaiarekin lotzen zutela. Horrek ekarri zuen programa eskolan ezartzeko beste ikuspuntutik lanketa egitea, garrantzia handia emanez gure ikasleek duten adinari. Lehen aipatu dugun bezala ikasleek programa ezagutzen dute derrigorrezko hezkuntzatik, eta hori jakinik, gure ideia izan da aurretik zuten ingurumen ezagutza indartu eta bere adinari eta lanbide heziketari dagokien baloreak irakastea.

Egun programa aldatua izan da Eskola Agenda 2030 programatik. 2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak aho batez onartu zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda. Ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzaile bat da, helburutzat duena giza garapena bultzatzea gizarte, ekonomia eta ingurumenaren alorretan. Horretarako 17 Garapen Iraunkorretako helburuak zehaztu dira. Helburu horiekin bat egitea askoz errazagoa izan da gure ikasleentzat, eta horietako batzuekin are errazago, bai hezkuntzarekin eta bai Lanbide heziketarekin oso lotuak daudelako.



Eskola
Jasangarría
Ziurtagiria

Certificado
de Escuela
Sostenible

Ikastetxeak, 9 urte hauetan, aurretik egindako lana ahaztu gabe, programa horiek jasotzen dituzten balore asko landu ditu:

- Kudeaketa arduratsu eta jasangarría EKOSCAN arau ziurtagiriaren bitartez.
- ETHAZI metodologia berriaren ezarpena ziklo guztietan.
- Ikastetxearen ingurumena, non zuhaitzak eta beste landaren artean 50 espezie baino gehiago ditugu. Kontuan hartu behar da ikasturte honetan eta hurrengoan BASOAK gaia landuko dela eta eskolan espezie guztien izenak ipiniko ditugula jendeak jakin dezan aurrean duen zuhaitza edo landarea zer izena du eta zer jatorria eta ezaugarriak dituen.
- Genero ikuspegia HARREMONAK programa bitartez. Tratu onen inguruko tailer bat da, bertan hezkidetzatza, parekidetasuna, sexu aniztasuna bezalako gaiak landuko dituzte gure ikasleekin. Saio guztiak burutu ondoren, tutoreekin emaitzen transmisio bilera bat egin da gure eskolako diagnostia zein den jakiteko.
- Aldaketa klimatikoaren aurkako neurriak, energia berriztagarriak bultzatzea, eraginkortasun energetikoa handia duten ekipoen erabilera. Honi gehitu behar zaio, gaur egun gure eskola EAEen energia berriztagarri sektorean erreferentzia dela.
- Gaika egiten dugun hondakinen kudeaketa. Urtero 1. kurtsoko ikasleentzat sentsibilizazio jardunaldi bat antolatzen da eta Usurbilgo Udaletxetik teknikaria bat eta Cristina-Eneatik beste bat etortzen dira eskolara, bata udaletxeak nola kudeatzen dituen hondakinak eta besteak konpost zer den eta nola egiten den azaltzeko.
- Urtean zehar egiten diren ekitaldi desberdinak. (Odol ematea, Euskara eguna, San Juan Bosco eguna)
- Gure ikasleentzako egiten diren errekonozimendu saioak. Eta bai ikasleei, eta bai bertako langileei, egiten zaizkien satisfazio inkestak guztion iritziak ezagutzeko eta ondorioz gure jarduna hobea izateko.

Ondorioz, ikastetxeak bere plangintzan eta bere lanean balore hauek bultzatzeko eta defenditzeko koherentea izan delako "ESKOLA JASANGARRIA" errekonozimendua jaso du. Horrek izugarriko poza eman digu eta baita indarra ildo beretik jarraitzeko.

ZORTE ON ZUEN BIZITZAKO ETAPA BERRIAN!

Ikasturte hau berezia izaten ari da zentzu askotan. Belaunaldien arteko erreleboari dagokionez ere inoiz baino irakasle gehiago jubilatuta dira aurten ikastetxean. Jon, Joxemari, Mariano, Bego, Pili eta Angeli iritsi zaie merezitako atsedena. Hainbeste urte lanean pasa eta gero, betebeharrak, kezak eta burukominak alde batera utzi, bizitzako etapa berri bati emango diete hasiera.



Beraiekin elkartu gara, orain arte izan dituzten bizipenak ezagutu eta etorkizunerako dauzkaten asmoen berri jakiteko.

BEGO ETXABE



Bizitza oso bat lanean. Zein izan zen zure ibilbidea Usurbilgo Lanbide Eskolara iritsi aurretik?

Administratiboko ikasketak egin bitartean 15 urtekin hasi nintzen lanean, Elhuyar eta Uzeiko hiztegien datuak ordenagailuan sartzen eta, ondoren, arratsaldetan Union Farmaceutica Guipuzkoan, farmazietako eskaerak ordenagailura pasatzen. Ikasketak amaitutakoan Londres-era joan nintzen urtebetez, Au Pair bezala. Handik etorritakoan BERRIOLA enpresan egin nuen lana urtebete inguruan aurrena tailerrean eta ondoren bulegoan. Martuteneko Lanbide Eskola ireki berria zela eta bertan Administratiboko klaseak Euskaraz ematea eskaini zidaten eta bertan 22 urte

egin nituen. Martuteneko Donostiako Zubiri-Manteora joan nintzen, bertan, 11 urte egin nituelarik. Irakasle moduan eta baita Administradore moduan. 2013an Usurbilera etorri nintzen.

Zenbat urte egin dituzu Usurbilgo Lanbide Eskolan? Zein lan egin dituzu bertan? Usurbilgo Lanbide Eskolan 7 urte egin ditu; irakasle moduan eta baita ere Administradore moduan (hau, 3 urtez).

Asko aldatu al da Lanbide Heziketa urte guzti hauetan?

Lanbide Heziketan aldaketa asko izan dira lege aldetik. Lehen ikasleak 14 urterekin etortzen ziren ikasleak eta 5 urte egoten ziren gurekin. Teknologia ere asko aldatu da, ordenagailurik ez ezagutzetik, dena ordenagailuz egitera pasa gara, ezin dugu ordenagailurik gabe lanik egin. Beti ikasten eta berritzen aritu gara.

Ba al daukazu eskolan bizitako bitxikeriarik edota pasarte berezirik?

Aipagarria agian nire Administratibo ikas-

ketak Usurbilgo Lanbide Eskolan hasi nituela (Aginanan zegoela garai artan) eta nire lan bizitzaren bukaera baita Usurbilgo Lanbide eskolan izan dela.

Zer baloratzen duzu gehien gure ikastetxetik?

Orokorrean jendearen lanarekiko jarrera oso ona ikusi dut, oso jende baliotsuarekin topatu naiz eta gainera giro onarekin. Era berean, baliabide aldetik, ahalik eta aurrerapen berrienak edukitzeko ahalegin handiak egiten dira. Jendearen arteko harremanak sendotzeko ere ahalegin handiak egiten dira.

Zein proiektu dituzu etapa berrirako?

Hasieran behintzat bizitza lasai hartzea, estresik gabe bizitzea. Pixkana, gustuko gauzak egiten hasi naiz: EPA-ra joaten naiz Historia ikastera, oso gustura gainera. Jubilatuen etxean antolatutako Bizitza Esperientzia taldean erfe parte hartzen dut. Orain arte egiten nuen beste jarduerekin ere jarraitzen dut: Taichi, meditazioa, paseoak egin etab... Ahal dugunean bidaiatzuk egitea ere gustatuko litzaidake.

ANGEL PEDRON



Bizitza oso bat lanean. Zein izan zen zure ibilbidea Usurbilgo Lanbide Eskolara iritsi aurretik?

4 eskolatik pasa nintzen Usurbilera heldu aurretik: Tolosa, Easo, Zamalbide eta Bergara. Gehienetan tailerreko klaseak ematen nituen, baina baita marrazketa, pneumatika, hidraulika, automatika, CNC, CAD-CAM, eta baita Elektrizitatea ere.

Zenbat urte egin dituzu Usurbilgo Lanbide Eskolan? Zein lan egin dituzu bertan?

Usurbilen 21 urte egin ditut. Denbora luze neraman eskolara etortzeko as-

moarekin, baina garai hartan ez ziren "trasladoak" konbokatzen. Urruti xamar nengoen Bergarako eskolan eta kilometro asko egin behar izaten nuen Donostiatik joan eta etortzeko. Eskolan Tailerra, CNC, CAM eta Sistema Osagarriak eman ditut. Era berean, Mantenu Informatikoan sartu nintzen eta urte askotan gelaz-gela ibili naiz ekipoak eta beste zenbait lanak egiten.

Asko aldatu al da Lanbide Heziketa urte guzti hauetan?

Egia esan bai, lehenengo urtetan makina gutxi genituen klaseak emateko eta eskuko lan asko egiten zen, limatzeko, zinzelatze, eskuko zorrozketak etabar. Gero urte gutxitan hornidura berriak izan genituen eta makina modernoagoak eta hobekak hasi ginen edukitzen.

Gainera lehenengo urtetan, papeleoa, azterketak eta informe guztiak ezkuz eta idazteko makinekin egiten genituen, gero hasi ziren ordenagailuak sartzen eta dena aldatu egin zen.

Ba al daukazu eskolan bizitako bitxikeriarik edota pasarte berezirik?

Bai, gogoratzen dut behin Bergarako eskolan, lhauterietan, mintegiko guztiak mozzoratuta joatea erabaki genuen eta egia esan arrakastatzea izan zen, sorpresa galanta izan zen ikasleentzako eta lankideentzako ere.

Zer baloratzen duzu gehien gure ikas-tetxetik?

Alde batetik eskolaren kokapena oso ona da, leku lasaia, polita eta era berehan erlaxantea. Nere ustez, eta era orokor baten esanda, irakasleek izan duten ikasleekiko eta irakasleekiko jarrera oso ona izan da, bai laguntzeko baita lanetan parte hartzeko ere.

Zein proiektu dituzu etapa berrirako?

Orain denbora edukita, lehenengo erlaxatu eta gustoko ditudan gauzak egin: irakurri, ingelesa ikasi, paseatu, mendia, txirringa, etabar eta ahal denean bidaiaren bat egin.

MARIANO ETXARRI



Bizitza oso bat lanean. Zein izan zen zure ibilbidea Usurbilgo Lanbide Eskolara iritsi aurretik?

Ikaslea nintzela, ikasleen artean irakasten genion elkarri. Irakastea gustukoa nuen. 1979 urtean, Tolosako LH eskolan "FP2" ikasketak bukatu eta Ingeniaritza teknikoa hasita, Tolosatik proposatu zidaten irakaslea izatea. Ikasturte horretan aurkeztu nintzen oposaketara, eta uztailan Tarragonan gainditu nituen 19 urtekin. Hurrengo urtean Zamalbidan izan nintzen eta 1981 Usurbilgo plaza hartu nuen jubilatuta arte.

Zenbat urte egin dituzu Usurbilgo Lanbide Eskolan? Zein lan egin dituzu bertan?

Soldaduska kenduta (Funtzionario bezala "cambio de destino" izan dut), 38 urte

pasata egin ditut. Mekanika tailerreko klaseak ematen, teknologia eta marrazketa ere eman ditut. Oso esperientzia ona zen. Betidanik, nire zama "Mekanikako ordutegia" izan da. Proiektuen artean "Biltegiak egokitzea" izan dut, hasieratik jubilatuta arte. Mekanikako Alorburu bezala 14 bat urte eta Zuzendari Orde bezala 7 urte (eskolako FNR eta FCT arduradunarekin).

Asko aldatu al da Lanbide Heziketa urte guzti hauetan?

Teknologian izugarri aldatu da. Ikaslearekiko harremanetan era bai. Eskuko lan finetatik, programatzen diren makina automatikoetan aditua izan arte. "Tiralineas" eta konpasetik, 3D diseinu digitala arte. Papera, arbela eta klarionetik, PC gure oinarrirako erreminta oso ahaltsua izan arte.

Ba al daukazu eskolan bizitako bitxikeriarik edota pasarte berezirik?

Eskolara etorri nintzela, ez zegoen zuhaitzik eta orain dena beterik. Lehen mekanikako zerra biltegia izateko (gaurko "G" eraikina), mekanikako irakasleok igeltzeroren morroiak izan ginen uztail batean (piko eta palarekin). Klaseetan erretzea

debekatu genuen, baina, azterketen garaian baimena ematen zitzaizkien ikasleei erretzeko. Ezkontzeko, uztaila zen gure hilabetea, klaserik ez galtzeko.

Zer baloratzen duzu gehien gure ikas-tetxetik?

Mekanikako arloari dagokionez denok bat eginda lan egitea, instalakuntzak hobetzeko beti prest egotea eta proiektuekin beti aurrera egitea baloratzen dut gehien. Eskolari dagokionez, zuzendaritza taldeek pertsonetik izan duten harretoa, eta ekipamenduak hobetzeko borondatea.

Zein proiektu dituzu etapa berrirako?

Kirolari dagokionez, errepideko txirringularia, MTB, mendizaletasuna asetzeari. Bidaiatzeari dagokionez, "Camper furgoneta" hobetuko dut, pandemia amaitzen denean bidaiatzeko. Etxean ere hobekuntzak egin behar ditu. Orain gainera, etxepeko administrazioa ematea tokatu zait. Bizitza guztian ateratako argazkiak ere digitalizatu eta klasifikatu nahi ditut. Eskolako lankideei ere, ahal den neurrian, eta eskatzen badite esku bat botatzeko prest nago. Baina proiekturik onena, iratzargailuak eta arduraz ahaztea izango da!

JON GARAIKOETXEA



Bizitza oso bat lanean. Zein izan zen zure ibilbidea Usurbilgo Lanbide Eskolara iritsi aurretik?

1979ko ekainean amaitu nituen ikasketak eta irailean Tolosako Lanbide Heziketarik bila etorri zitzaizkidan etxera, klaseak

ematen hasi nahi al nuen galdetuz, erantzuna baiezkoa izan zen eta 1979ko urriak 1etik aurrera bertan hasi nintzen.

1980ko uztailan beste bizitza batera pasatzea tokatu zitzaidan, Espainiako Ejerzitoari zin egitera hain zuzen ere. 1980ko abuztuak 30ean, Tolosan tren hartu eta Zaragozako herrira iritsi nintzen, bertan lo-kuluxka bat egin eta Hercules zahar batean sartu eta Kanaria haundietara iritsi nintzen "Espainia defendatzeko asmoz".

1981eko irailean bukatu ziren opor horiek eta Euskal-Herrira itzuli, gizon eginda. Ordezkaritzara jo nuen eta Donostiako Easo Politeknikoan Lantokiko Praktiketaren postu bat zegoela esan zidaten. Bertan 2 urtez egon nintzen. 1983an, oposaketak gainditu ondoren Martuteneko Lanbide Heziketako ikastetxean, tailerreko maisu bezala plaza finkoa euskaraz lortu nuen. 1984ko ekainean MUFACE-ko kide izendatu ninduten eta bertan egon nintzen 2003-ko abuztuaren 31ra arte.

Zenbat urte egin dituzu Usurbilgo Lanbide Eskolan? Zein lan egin dituzu bertan?

2003ko irailaren batetik aurrera, 17 urtez Usurbilgo ikastetxean egon naiz, 2020ko uztailaren 31ean erretiratu arte. Iritsi bezain pronto tutoretza sistema batean sartu nintzen (taldeko hiru edo lau tutore egoten ziren). Urte bat pasa ondoren arloko diruzaina jarri ninduten, tutoretzarekin batera.

2006ko urriak 16, 17 eta 18an, Antonio Gil de Gómezekin, Madrileren joan nintzen Hezkuntza Ministerioak aginduta LOE-ko DCB batzuk berritzera. Madrileren bidai ugari egin eta Eusko Jaurlaritzako IVAC-ekin berritze lanetan aritu ondoren, 2010ean ikastetxeko zuzendaritzan sartu nintzen. Aurreko ikasketaburua jubilatzen zen eta bere postua hartu nuen 2013 arte. 2013tik aurrera zuzendaritza kargua aldatu nuen eta ikastetxeko idazkaria izan naiz erretiratu arte.

JOXEMARI FURUNDARENA



Bizitza oso bat lanean. Zein izan zen zure ibilbidea Usurbilgo Lanbide Eskolara (ULE) iritsi aurretik?

Aurretik, nire lan esperientzia gurasoen eta familiarterako enprekin lotua dago. Alde batetik Transportes USURBIL deituriko enpresarekin eta Sidras MAI-ONA sagardo enpresarekin ere. Aitarekin harreman gehiago izan nuen garraio munduan, Victorio Luzuriagako bobinak garraiatzen, ondarra eskuz uztutzen V. Luzuriagan, platanok Bilbotik ekartzen, egur tronkoak Asturiasetik Erreteriarra ekartzen e.a. Garai hartan kamionaren erruedak apurtutakoan bidean, momentuan konpotzen genituen... Orain ezinezkoa da hori horrela egitea.

Zenbat urte egin dituzu Usurbilgo Lanbide Eskolan? Zein lan egin dituzu bertan?
Ingenieritza Teknikoko ikasketak egiten negoen garaian, Usurbilgo Lanbide Eskolare-

kin izan nuen lehen harremana. Aguinaga auzoan zegoen ULE ikastetxea. ULEn hasi eta bertan berrogeita bat urte jarraian egin ditut 2020ko irailean jubilatzen arte. Hasieran matematika, fisika eta euskaldantzen gaiak irakasten hasi nintzen. Gero oposaketak teknologia mekanikoan atera nituen eta teknologia, tailerra eta marrazketa irakasten hasi nitzen beste irakasleekin elkarlanean. Denetariko lana egitea tokatu zait, ez teknikoa bakarrik. Gurasoen harremanak, hau da, tutoretza jorratu, enprekin harremanetan jarri ikasleen praktikak antolatzen, ikasleentzako bisitak kudeatu, departamentu mekanikoaren arduradun eta abar.

Asko aldatu al da Lanbide Heziketa urte guzti hauetan?

Bai. Urtero aldaketak izaten dira. Gauza berriak sortzen dira eta horrek ekartzen du ikasi eta eguneratuta egon beharra ikasleei erakusteko. Adibidez, hasieran batez ere erraminta eskuzkoak erabiltzen ziren. 90. urte inguruan zenbakizko kontraleko makinak erabiltzen hasi ginen. Aurrerapen handi izan zen. Enpresetan ez zuten askok ezagutzen teknologi hori eta guri tokatu zitzaigun gidari izatea.

Ba al daukazu eskolan bizitako bitxikeriarik edota pasarte berezirik?

Ez dakit bitzikeria izango den baina go-

goratzen nahizen gauza berezietako bat honakoa hau da:

Arratsaldeetan ikastaro bereziak ematen genituen 18:00etatik 21:00arte. Enpresako teknikoak etortzen ziren gai berriak ikastera. Hain interes handi zeukaten zer batzuetan atezainak zakurrak ateratzen zizkiguten klaseak berandu bukatzeagatik eta hurrungoan lehenago bukatzeko.

Zer baloratzen duzu gehien gure ikastetxetik?

Gehien baloratzen den gauzetako bat, esango nuke, ikastetxeak eman dizkidan aukerak gauza berriak ikasi, jorratu eta eskatutako zenbait dotazio akademikoak jaso izana. Lan giro ederra eta irakasle harreman ona ere bai, noski.

Zein proiektu dituzu etapa berrirako?

Afizio moduan txirrindan ibiltzea gustokodut, eguraldiak laguntzen badu. Bestalde, diseinu ete 3D inprimaketarekin jarraitzen dut. Lagunak edo familiarterako eskatzen dizkirate bere beharrak egitea.

Naturarekin lotuta, sagar, udare eta aran zuhaitz batzuk baditut. Horiek zaindu, berriak landatu, eta lur eremu bat babesten saiatzen nahiz. Etxeko eta komunitateko egin beharrak ere denbora ugari eramaten du. Nire proiektu berezietako bat, lagunekin Patagonia ingurua ezagutzea da.

Asko aldatu al da Lanbide Heziketa urte guzti hauetan?

Bai, Hezkuntza Sistema asko pasa ditugu. Ikasleak tratatzeko sistema ere asko aldatu da. Garai batean ikasle-taldeak handiagoak ziren eta ikaslearekin tratua ezin zen hain pertsonala egin eta Ordezkaritzan ez zeuden gaur egun dauden errekursoak, (Tknika, Berritzeguneak, IVAC, etab.).

Garai guzti hauetan informatikak egin du jauzi haundiena. 80ko hamarkadan, ordenagailua pizteko sistema bat sartu behar genuen. Aurrerago, ordenagailua mugitzeko karro bat behar genuen. Gaur egun, ordea, lainoa, Sarea, Wi-Fi- eta Internet-a munduko edozein txokotan aurki dezakegu.

Gaur egungo sistema (ETHAZI), asmakuntza handi bat izan da, ikasleari dagokion protagonismoa emateko, berak sortu ditzan ikasteko erabili behar duen bidea, lan egiteko sistema eta abar, irakaslearen gidaritzapean.

Ba al daukazu eskolan bizitako bitxikeriarik edota pasarte berezirik?

Bitxikeria moduan, mekanikako biltegi zaharra edo zerra tokia deitzen zitzaion txokoa "hamaiketakoak" nola egiten ziren eta batik bat urtero ostegun gizen egunean Marianok eramaten zuen txis-torra.

Gaur egungo material, mahai, apal eta bestelako elementuak, zein erraz kenduak izaten diren eta beste garai batzuetan zenbat kostatzen zen desagerraraztea.

Zer baloratzen duzu gehien gure ikastetxetik?

Ikasleari asko entzuten zaiola eta ondorioz beraien iritzia kontutan hartzen direla. Ikasleak eskolan erabili dezakeen materiala, enpresan izango duenaren parekoa izango da. Proiektu berrietan sartzeko ez da beldurrik izaten. Eraikin desberdinak izatea eta beraiek ematen

duen aukera moldaketak egiteko. Ethazi bezalako sistema berrira erraz moldatzeko baliabideak izatea. Kokapen geografikoa naturaren barnean. Zuzendaritzatik esku zabalak izatea, sor ditezkeen proiektu edo idea berrien aurrean.

Zein proiektu dituzu etapa berrirako? (Afizioak, hobbyak, betebeharrak...)

Urteak aurrera doaz eta ondorioz osasuna zaintzea da lehenengo egin beharra. Mendi irteera batzuk buruan banituen eta horiek egiteko kapaza izatea. Ingurumen taldearekin batera, mundu honen ezagutza izan (hitzaldiak, flihera bisita, Jaizkibelgo arrokak ezagutzea, Leitzarango lurrak, eta abar). Laneko garaietan etxeko lan gutxiago egin zenez, orain horietan murgiltzea. Konfinamendu madarikatu hau bukatzen denean, buruan ditudan bidai batzuk familiarekin egitea.

PILI ZUBIRIA



Bizitza oso bat lanean. Zein izan zen zure ibilbidea Usurbilgo Lanbide Eskolara iritsi aurretik?

ULEn lanean hasi aurretik klase partikularrak ematen nituen eta testuak mekano-grafiatzen aritu nintzen lanean. UZEI-k egin zuen euskarazko lehenengo hiztegia eta guk tekleatu genituen hitz guztiak. Ondoren Unión farmacéutican kontratatu ninduten eta bi urtez ibili nintzen albaranak ordenagailuan sartzan. Hori dena 15 eta 17 urte bitartean.

Zenbat urte egin dituzu Usurbilgo Lanbide Eskolan? Zein lan egin dituzu bertan?

1977/78 ikasturtean ULEn kontratatu ninduten, klase batzuk eman eta bulegoan laguntzeko (Arantxa Vitoria eta ni). Esan behar da gu ikasleak izan ginela aurrena eskola sortu zen urtean, 1975an. Aginagako elizan ondoan dagoen jubilatuen taber-

nan gure 1º kurtsoa izan zen. Gero bulegoan lanean urte batzuk. Gero oposaketak gauditu 1985n eta irakasle gisa. 1987n nire plaza Azkoitian hartu nuen eta 19 urte eskolatik kanpo ibili nintzen irakasle Azkoitia, Zamalbide, Lasarte... eta 2006an itzuli nintzen berriro nire "etxera", ULEra alegia. Irakasle aritu naiz eta azken hiru urteak zuzendaritzan ere bai. Beraz estamentu guztiak ezagutu ditut eta beti oso gustura. Niretzat berezia da eskola hau, hasieratik eta barrutik ezagutu dudalako.

Asko aldatu al da Lanbide Heziketa urte guzti hauetan?

Ufff, aldaketa oso handia izan da. 1975n, hala nola hasi ziren Aginagako elizaren ondoko tabernan eta fraileentzako eraikitako geletan. Baldintza kaxkarrak. 1978n inauguratu zen eraikuntza berria. Ikasle asko ziren garai haietan. Askotan ikusi nituen irakasleak igeltsero eta pintore lanak egiten. Eraikuntza berriak daude geroztik eta berrikuntza beti izanda ikastetxearen ezaugarri nagusietako bat, beraz etengabe egin dira berrikuntzak eta pentsatzen dut horrela jarraituko duela.

Ba al daukazu eskolan bizitako bitxikeriarik edota pasarte berezirik?

Niretzat oso polita izan da azkeneko urteetan nire betiko bi lagunekin egon nai-

zela lanean arlo berdinean, Arantxa eta Begorekin. Urte batzuetan bakoitza ikastetxe batean geunden baino azken urteak elkarrekin egon gara eta hori polita izan da. Orain hirurok jubilatuta gaude.

Zer baloratzen duzu gehien gure ikastetxetik?

Nire ustez, langileen artean sortzen den sentimendua eta inplikazioa eskolarekiko. Arlo bakoitzean lan handia egiten duten pertsonak daude, proiektu asko eta desberdinetan. Hori eskolarentzat altxorra da.

Zein proiektu dituzu etapa berrirako? (Afizioak, hobbyak, betebeharrak...)

Ba egia esanda harrিতa nago lana utzi eta zeinen azkar deskonektatzen den. Ahaztu ez noski, baino deskonektatu bai, agian izango da ziur nagoelako nire ordezkoe hobeto egingo dutela. Orain, izena eman dut Usurbilgo esperientzia eskolan eta asteroko hitzaldiak izaten ditugu. Bestalde Lasarteko EPAn historia ikasten hasi naiz. Lagunekin geratzen naiz astean bitan kafetxo bat hartu eta ibiltzera joateko. Orain pixka bat utzita daukat baina yoga egiten jarraitzeko asmoa daukat. Hoberena da kezka gutxiago ditudala buruan eta ordutegia lasaia dela, beranduago jaiki, lasai gosald... oraingoz hori da nire plana.

MEDITAZIOA HEZKUNTZA ARLOAN

Hezkuntza prozesua konplexua da, alde batetik irakaskuntza prozesua eta bestetik ikaste prozesua batzen dituena. Eta bada zerbait ezinbestekoa dena bi alderdietan hezkuntzaren hartu emana gauzatzeko: arreta eta lasaitasuna.

Ikastetxe osasuntsu baten parte izan nahi badugu bi alderdi hauek landu beharko ditugu eta horretarako, eskolako irakasle eta zuzendaritzako kide ohi den Juantxo Mendikute daukagu bidelagun. Iaz hasitako esperientziarekin jarraituz, meditazioak gure egunerokoan dituen onurak lantzeko gidatutako meditazio taldea ostegunero biltzen da 15:00etan.



¿Qué es meditar?

JUANTXO MENDIKUTE

Meditar es empezar a mirarte en el espejo, sin trampas, es desarrollar lo más importante que tienes, ya que todos deseamos liberarnos del sufrimiento y ser felices.

Funcionamos mucho con pensamientos inconscientes... y decimos... no sé porqué pero estoy triste... estoy ansioso... todo ello es fruto de que dentro de esos pensamientos inconscientes ha habido alguno (que no nos hemos dado cuenta), que nos hace sentir lo anterior.

La práctica meditativa consiste en observar la experiencia de cada momento. Todo lo que en este momento constituye la experiencia, lo que vives, lo que estás viviendo aquí y ahora, en toda su amplitud y en toda su profundidad...para ello utilizamos la atención consciente.

El trabajar la Atención Plena se caracteriza por el ejercicio de dos habilidades psicológicas importantes: vivir en el momento presente y estar abierto a las circunstancias cambiantes tanto internas como externas.

Eso nos lleva a observar bien esta experiencia, porque esta experiencia es lo único que hay. Esta experiencia es la marca de la existencia, así que, desde el nacimiento hasta la muerte, tu vida es el continuo despliegue de esta experiencia. La experiencia de cada momento siempre es nueva y diferente de la anterior y de la posterior. Aunque cambia continuamente siempre hay experiencia, siempre estás experimentando. La vida es la experiencia de cada momento.

En la experiencia de este momento puede haber recuerdos del pasado o puede haber recreaciones del futuro, pero sólo hay la experiencia de este momento, y de este, y de este...para ello tienes que ir enfocándola por partes. Como si mirases un paisaje vas dirigiendo un foco que va alumbrando partes de ese paisaje. Ahora aparece un pensamiento, después una sensación táctil, a continuación una sensación de disgusto, luego el movimiento del vientre o del pecho al respirar. Hay cosas de las que eres consciente y otras de las que apenas te das cuenta...

Al darte cuenta de la diferencia entre experiencia consciente y experiencia cuasi-inconsciente puedes comprender que hay muchos fenómenos físicos y mentales que están sucediendo en este momento de los que no te percatas. En cada momento hay algo que aparece con más claridad y otras cosas que se quedan en un segundo, tercero o cuarto plano. Hay objetos que consigues detectar y otros que pasan casi desapercibidos.

La práctica meditativa es un proceso, es una carrera de fondo. La práctica es un entrenamiento sin buscar el fin de la meditación como tal. Se necesita priorizar, por ejemplo, establecer que cada día voy a meditar 5 minutos, aparecerán muchos pensamientos -justificaciones pero no hay que ceder, como mínimo hay que hacer lo establecido y si se está a gusto pues más. Cada uno tiene que buscar en que motivarse. Es importante saber cuál es mi motivación ya que incide en la voluntad de ponerse a meditar con lo cual priorizo lo que voy a hacer.

¿Cómo ayuda psicológicamente la meditación?. Solo con un hábito de meditación diaria conseguimos serenarnos utilizando la respiración. La meditación si no se aplica en tu vida diaria no tiene sentido. A lo largo del día, debo de darme cuenta puntualmente cual es el estado del cuerpo- emociones-mente.

Las olas de la vida como las del mar, van y vienen, y a veces decimos. . . ¿cómo me ha tocado esto a mí? ¿Por qué?..porque gracias a esa experiencia aprendes a desarrollar unas cualidades que las tenías ocultas.

BENEFICIOS DE MEDITAR

Vemos que en los últimos años hay más personas que se acercan al tema de la meditación. Cada vez se realizan más estudios e investigaciones científicas que demuestran que dichas prácticas redundan en beneficios físicos, fisiológicos, psicológicos y emocionales. Y especialmente gracias al efecto de neutralización o reducción del estrés y la ansiedad que posee, dos estados mentales que repercuten de un modo muy negativo sobre nuestro bienestar.

Además, la meditación parece potenciar enormemente nuestra capacidad de concentración, cuyo déficit se encuentra detrás de muchos de nuestros problemas. Nos cuesta mantenernos en el presente pensando solo en lo que tenemos entre manos. La práctica meditativa o sea la observación de lo que ocurre en cada momento nos entrena para poder realizar tareas que demanden concentración.

Pero la meditación también tiene un impacto positivo en nuestras relaciones. ¿La razón? Practicar esta disciplina aumenta nuestra empatía y nuestra compasión hacia los demás, lo que desemboca generalmente en relaciones más saludables.

La meditación consciente reduce las sensaciones de dolor en el cuerpo siendo capaz de generar en quienes la practican una mayor resistencia física al dolor. En definitiva, la meditación es una gran aliada de nuestra salud física, psicológica y emocional. Y está al alcance de todos.



COVID-19 Kudeaketa



Rafa Azkona

IKASTETXEKO COVID ARDURADUNA

lazko kurtso amaiera berezia izan genuen oso... Egun batetik bestera etxetik antolatutako behar izan genituen ikastetxeko jarduerak guztiak. Gure arteko koordinazioa, orain horren arrunta gertatzen zaizkigun bide berrietatik egin behar izan genuen eta eskolak emateko modua ere egoera berrira moldatu genuen lan eta esfortzu izugarriarekin. Hala ere, kezka eta beldur askoren artean, Hezkuntza eta Osasun sailaren jarraibideak beteaz, “Kontingentzia plan” bat osatu, ikastetxea prestatu eta ikasturtea ikastetxean amaitu genuen.

2020-21 ikasturtea ere berezia izan da. Mundu mailako pandemia batek ikastetxeko egunerokoa aldatu digu. Esfortzu handia egin da irailean klaseak hasi eta ikastetxea prestatzeko. Arau asko jarri dira ikasle eta langileen segurtasuna bermatzeko. Arruntak bilakatu dira musuko, tenperatura, hidrogel eta distantzia hitzak. Eta aforo eta burbuilak bermatzeko gela eta atsedenukuak moldatu dira.

Gogorrena ordea ikasle eta lankideekin kontaktua murriztea izan da. Eta ospakizun eta jarduerak asko egiteko ezintasuna.

Zer moduz joan da ikasturtea?

Ba pentsatzen genuena baino hobeto... Egia esan ikasturtea ezjakintasun handiarekin hasi genuen. Jarritako segurtasun neurriak egokiak edo nahikoak izango ziren ez geneukan garbi eta neurri eta arau asko etengabe asmatzen aritu ginen. Denbora pasatu den heinean ikusi dugu benetan zerk duen garrantzia kasu bat gertatzen den momentuan, txostenak egiteko modua, zer galdetu informazio egokia biltzeko eta abar. Protokolo bat lortu dugu eta horrek egunerokoa laguntzen du. Horrek ez du kentzen eguneroko eta momenturo asteburu eta oporrak barne ere egon behar izatea eta abisuren bat jasotzen denean interbentzioa egin behar izatea... Hala ere ikasturteko balorazioa ona izan da. Ikastetxean transmisioa oso baxua izan dela iruditu zaigu.

Zein izan dira hartu diren neurri garrantzitsuenak?

Jaso ditugun arau eta aholkuak jarraituz ikastetxea antolatzen eta hornitzen saiatu gara. Gela guztietan gehienezko edukierak ipini dira eta mahaiak eta lanpostuen kokapena egokitu egin dira distantziak ahal den neurrian zabaltzeko. Ikastetxea ikurrez bete dugu, pertsonen fluxua bideratu eta segurtasun neurrien erabilera gogorarazteko.

Ordutegietan ere eragina izan du, ikasleak amankomuneko lekuetan ez koinziditzeko atsedenukuak moldatu dira. Eta irakasteko moduan ere eragina izan duela aipatu behar da.

Nola ikusten duzu hurrengo ikasturtea?

Nire ustez, ikasturte honekin alde handirik ez du izango. Artalde immunitatera ez gara iritsiko, eta ikusten dudana gizartearen joerak ez du itxaropen handirik ematen. Beraz, ez dut espero aldaketa gehiegirik. Eskolan aurtengo neurriekin jarraitu beharko dugu. Agian aldaketa txiki batzuekin, baina musukoak, distantziak geltan eta atsedenetan... antzeko.

IKASTETXEA LEKU SEGURUA

Ikasle eta langileen artean positibo batzuk ere izan ditugu. 55 kasu inguru kudeatu dira maiatza bitartean. Pandemiaren momentu gogorrenetan ere 10 kasu pilatu dira momentu berean. Hala ere ikastetxean bertan transmisioa oso bajua izan da. Eta hori, hobeto egin daitekeen arren, arauak ipini eta bete direlako izan da.

Ikasturte guztian zehar konfinatutako pertsona ugari izan da eta irakasle eta ikasleak egoera horretara moldatu behar izan dute.

Kasu guzti hauen kudeaketa Donostiako OSIarekin eta Eusko Jaurlaritzako prebentzio zerbitzuarekin koordinazioan egin da. Eskolako Covid arduraduna Rafa Azkona izan da.



Jaci Herrero
GARBITZAILEA

La brigada azul. Habéis sido claves para el control de la pandemia en el centro. ¿Cómo ha ido el curso?

Distinto. Este curso hemos tenido que adaptar nuestro modo de trabajar, se ha reforzado el personal y estamos haciendo un turno por las mañanas para estar desinfectando continuamente. La limpieza ha tenido que ser más a fondo y con productos especiales. Hemos tenido que coordinarnos para poder desinfectar las aulas y las salas de reuniones que se comparten para evitar posibles riesgos.

¿Habéis sentido miedo al tener que desinfectar espacios en los que ha pasado mucha gente?

Miedo no. Si hemos puesto más cuidado al limpiar un aula en el que ha habido un caso positivo. Pero miedo no.

¿Habéis tenido suficientes recursos?

Hicimos una pequeña formación a primeros de curso para saber qué productos usar y cómo usarlos. Por lo demás se han usado disoluciones de lejía para desinfectar suelo y mobiliario y nos hemos asegurado de que no faltase gel hidroalcohólico en ningún aula.

¡Gracias por el esfuerzo!



Xuban Manterola eta Maddi Aldai
IKASLEAK

Zer moduz joan da ikasturte berezi hau? Gogorra izan dira hartutako neurriak?

X.M. Ondo. Egia esan iraillean lasai eta gogotsu hasi ginen. Iazko ikasturte amaiera kontutan izanda klasera bueltatzeko gogo askorekin ginen.

M.A. Udara pasa ondoren musuko eta distantzia kontuekin ohituta ginen dagoeneko eta ez zaigu batere gogorra egin gelan eta atse-den momentuetan segurtasun neurriak mantentzea.

Tokatu al zaizue gelan positibo kasurik edo konfinatuak izatea?

M.A. Aste Santu bueltan izan ditugu 2 kasu. Egia esan hasieran sustoa hartu genuen, zein eragina izango zuen gelan, kontaktua izan zenuen edo ez pentsatzea...

X.M. Nere kasuan kontaktu zuzen bezela hartu ninduten eta etxean konfinatua egon nintzen 10 egunez.

Zer moduz etxean konfinatuta izanda klaseak jarraitzea?

X.M. Klaseak jarraitzeko ez dut arazorik izan. Egia da klase batzuk besteak baino zailagoak direla etxetik lantzeko eta zuk bakarrik zaudela batzuetan azalpenak falta zaizkizu.

Ikasturtean zehar hiru olatu edo kolpe izan ditugu? Zein izan da pandemiaren garapena zuen inguruan?

M.A. Ba azken olatu hau izaten ari da gogorrena. Ikastetxetik kanpo ere kasu asko azaltzen ari dira gure ingurunean.

Nola ikusten duzue hurrengo ikasturtea?

M.A. Udara eta gero agian berriro egoera okertu daiteke baina txertaketarekin egoera hobetuko duela pentsatzen dut.

X.M. Agian gabonak arte antzeko jarraituko degu baina gero kasuak behera egitea espero dut.

errebotean

USURBILGO LANBIDE ESKOLA · 2020-2021



CFP USURBIL LHII

**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CFP USURBIL LHII

Etarte bidea, 9 (Zubieta auzoa)

20170 USURBIL (Gipuzkoa)

Tel. 943 36 46 00

eskola@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus